

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO
BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Apirila / 276 Zenbakia



BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

Juan Mari Aburto Bilboko alkateak Euskararen Aholku Batzordearen bilera zuzendu zuen. Batzorde horrek Bilbao Metropoli-30en babes teknikoa dauka funtzioak betetzeko. Bile-

ran, Bilboko arlo politiko, kultural eta sozialeko ordezkariak hartu dute parte, eta horien artean dago Bilbao Metropoli-30 elkartearen kanpo-harremanetarako ordezkaria.

Martxoaren 13an aurkeztuzen SKILLS Profesionaltasunerako Trebetasunen Programaren III. edizioa, eta 270 ikaslek hartu zuten parte.

SKILLS Programaren III. edizioa

Martxoaren 13an, SKILLS Profesionaltasunerako Trebetasunen Programa aurkeztu zitzaizen aurrez hautatuta zeuden lehen mailako ikasleei, programaren hirugarren edizioan sartzeko.

SKILLS (lehenago Bizkaian Profesionaltasunerako Trebetasunen) Programa berritzaile bezain aitzindariaren hirugarren edizioa. Bertan, hain zuzen ere, 270 ikaslek parte hartuko dute.



Programa hori bizkaia:talent-ek zuzentzen du, eta honako hauexen babesa jaso du: Bilbao Metropoli-30, EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Deustuko Unibertsitateko Deusto Business School, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa eta elkargo profesional batzuk: Euskadiko Ekonomialarien Elkargoa, Euskadiko Kimikarien eta Ingeniari Kimikoen Elkargoa eta Euskadiko Bide, Kanal eta Portuetako Ingeniarien Elkargoa, Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala eta Bizkaia eta Bizkaia Jaureriko

Abokatuen Bazkun Ohoretsua.

Programaren helburua da, ikasle-garaian, ikasle parte-hartzaileek bizitzako eta karrerako plana diseinatzea, euren interes eta asmoetan oinarrituta. Plan hori euren garapenerako tresna izango da, eta, modu horretan, maila pertsonal zein profesionalean satisfazio handiagoa lortuko dute.

Programa honen bitartez, ikasleek profesional adituen laguntza izango dute, jarduera akademikoetan eta curriculumari dagozkion jardueretan euren plana diseinatzeko orduan. Gainera, karreran eskuratutako trebetasun eta gaitasunen portafolioa garatu ahal izango dute, eta euren talentua enpresa eta erakundeei eskaintzen ikasiko dute, balioaren eta ongizatearen sorreran arreta jarritz.

Zeharkako eskumenen taldekako tailerrek, elkargoaren euskarria duten taldekako tailerrek, taldekako coaching saioek eta gizarte-ekintzako ekimenek osatzen dute SKILLS programa.

Bilbao Bizkaia Action Group

Martxoaren 21ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritzak Bilbao Bizkaia Action Groupeko kide-

ak deitu ditu 3. ohiko bilerara, Sabino Arana 8an (BEAZ eraikina) duen egoitzara, BBAGren erronkei eta egiturari buruz hitz egiteko, bai eta BBAGrekin 2020 estrategia berrira batu diren lantaldeei buruz jarduteko ere.

“World Cities” Europako proiektua

Bilboko Udala “World Cities” Europako proiektuan parte hartzen du. Proiektu hori Europako hiriek eta beste eskualde batzuek hiri-garapen iraunkorraren arloan dituzten esperientziak trukatu ditzaten laguntza ematera dago bideratuta, Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren esparruan.

EBtik kanpokoak diren herrialdeei dagokienez, lankidetzan zein herrialderekin aritzeko interesa duen (Hego Korea, Hegoafrika, Indonesia eta Vietnam) zehaztu zuen Batzordeak, eta Europako hainbat hiriri gonbit egin zien espe-

rirentziak partekatuzera, Europako hiri bat eta Europatik kanpoko beste hiri bat lotuta. Testuinguru horretan, Bilbok Hego Afrikako Lurmutur Hiriarekin (Cape Town) lan egitea erabaki zuen, hirigintza, iraunkortasun eta ingurumeneko alorretan interes komunekin proiektuak garatzeko.



Proiektu honen garapenerako, Bilboko Udalak Bilbao Metropoli-30 elkartearekin lan egitea eskatu du, hirien garapenarekin estu lotutako agentea baita, bai eta Deustuko Unibertsitatea eta Bilboko Merkataritza Ganberarekin ere.

Elkarteak Bilboko Udalaren World Cities europar proiektuan parte hartu zuen, Bilbao Metropoli-30ek hirien garapenaren alorrean daukan esperientzia dela-eta.



World Cities

EU – Third Countries Cooperation on Urban and Regional Development

Apirilaren 4an, Juan Mari Aburto Bilboko alkateak Euskararen Aholku Batzordearen bilera zuzendu zuen udal-bulegoetan, eta Bilbao-Metropoli 30ek ere hartu zuen parte bertan.

Martxoaren 27tik 31ra, Bilboko ordezkariak batek Lurmutur Hirira bidaiatu du, hiri horretako ordezkariekin harremanak abiarazteko.

[San Luis Potosíko \(Mexiko\) udalaren bisita](#)

Bizkaiko Foru Aldundiak, GARAPEN bitartez, "Muga Hirukoitzeko (Argentina, Brasil, Paraguai) eta San Luis Potosí (Mexiko) Estatuko enpresen alderantzizko misioa Bizkaira" antolatu du, martxoaren 27tik 31ra, herrialde horietako udal eta enpresa arloko eragilez osatuta. Bizkaiko enpresentzat aipatutako inguruneetan alderantzizko misio bat eta sustapen komertzialerako misio zuzen bat da.



SAN LUIS POTOSÍ
H. AYUNTAMIENTO 2015 2018

Interesatuaren eskariz, Elkartek martxoaren 30ean Mexikoko San Luis Potosíko udaleko ordezkari bati egin zion harrera, Eugenio Roblesi, hain zuzen; izan ere, Bilbao Metropolitarraren eraldaketa-prozesua ezagutzeko interesa dauka, eta, zehazki, Elkartek

BM2035 delakoan jarri duen ikuspuntuaren berri izan nahi du.

Misioaren ordezkariak maila instituzionalean hartu dituzte, eta Meatzaldean, Mungialdean, Txorierrin eta Arrasaten zenbait enpresa bisitatzeaz gainera, Bilboko Portua eta Bizkaiko Parke Teknologikoa bisitatu dituzte, besteak beste.

[Bilboko Euskararen Aholku Batzordea](#)

Juan Mari Aburto Bilboko alkateak Euskararen Aholku Batzordearen bilera zuzendu du, apirilaren 4an, udal-bulegoetan. Osoko bilera honetan, 3 azpitaldeetan eztabaidatu diren proposamenak landu dira, bai eta aurrera begira zein pauso hartu behar diren ere. Bileran, Bilboko arlo politiko, kultural eta sozialeko hogeitaz ordezkari inguruk hartu dute parte, eta horien artean Bilbao Metropoli-30 elkartearen kanpo-harremanetarako ordezkaria dago.

Hizkuntzaren alorreko aholku- eta eztabaida-organoa da Euskararen Aholku Batzordea, eta 2016ko otsailean jarri zen martxan. Taldean lan eginda, bizitzaren hainbat arlotan euskararen normalizazioa lortzea du xede. Euskarazko kulturaren kontsumoa sustatu nahi da, erabilera eta ezagutza bermatuz. Gainera, euskaldunen komunitatea



indartu nahi du, bertatik bertara aritzeko zein birtualak diren sareak zabalduz eta sendotuz, bai eta euskararen erakargarritasunean azpimarra jarri eta modu egokian proiektatzea ere, izan ere, euskarak erabilera asko gordetzen ditu, eta espazio nahikoa du euskarara hurbiltzen diren guztiei lekua egiteko.

[Bisita: Audencia Nantes – Ecole de Management](#)

Iragan urteetan bezala, eta Bilbao Metropoli-30eko bazkide sortzaile den Deustuko Unibertsitatearen eskariz, apirilaren 26an Audencia Nantes–Ecole de Managementeko ikasle talde batek Bilbao Metropoli-30 Elkartearen bisitatuko du. Bilbao Metropolitarraren biziberritze-prozesua eta elkartearen lantzen ari den Bilbao Metropolitarraren 2035 hausnarketa estrategikoaren prozesua bertatik bertara ezagutzeko interesa dute.

Aste batez, ikasleek zenbait erakunde bisitatuko dituzte, eta azalduko zaie Elkarteak zein presentzia eta paper izan duen hiriarren aldetan, bai eta ikuspegi akademiko-ago bat ere.



[German Marshall Fund](#)

Maiatzaren 10ean, Bilbao Metropolitarraren Birbizteko Elkartearen bulegoetan Estatu Batuetako Georgia Estatuko parlamentari baten bisita jasoko da. German Marshall Fund of the United Stateseko ordezkari-tza bateko kide da, eta Bilbora urtero egiten dute bisita, Udalarekin duten hitzarmena betetzeko.

Bisitaren interesa Bilbao Metropoli-30eko elkarlan publiko-pribatuan dago.



barne aldizkaria



“Emakumea, Berdintasuna & Ekintzailtza” foroa Community of insurancek antolatzen du, eta Bilboko Udalak babesten du, eta, beste batzuekin batera, Bilbao Metropoli-30 erakunde laguntzailea da.



IV Emakumea, Berdintasuna & Ekintzailtza Foroa

“Emakumea, Berdintasuna & Ekintzailtza” foroaren xedea da enpresaren alorreko berdintasun, dibertsitate, bateratze eta lidergoaren inguruan eztabaidatzea. Community of insurance da antolatzailea, eta, besteak beste, Bilboko Udalaren babesa du; Bilbao Metropoli-30 elkarteak erakunde laguntzaile gisa arituko da.

Bilboko alkateak irekiko du ekitaldia, eta hainbat alorretako hitzaldiak egongo dira: instituzionalak, enpresetakoak, unibertsitatekoak

eta gai horietan esperientzia duten herrialdeenak; Suediak, adibidez, gaiaren inguruko ikuspegi gaurkotua eskainiko du.

Nabarmentzekoa da honako hauek eskaini duten laguntza: Dolors Monserrat, Osasun eta Berdintasuneko ministroa; Karin Casola, Zurich Woman Network erakundearen zuzendaria, eta Luisa Alli Turriillas, IKEAko Komunikazio zuzendaria. Bestalde, Suediako enbaxadoreak ere hartuko du parte ekitaldian. Foroa maiatzaren 18an izango da, Deustuko Unibertsitatean (Icaza aretoa).

governuko bazkide eta organoak

130. Zuzendaritza Batzordea (EUDEL)



Apirilaren 28an, Bilbao Metropoli-30en bazkide sortzaile den EUDEL elkartearen Zuzendaritza Batzordearen bilera egingo da.

Jorratuko diren gaietako batzuk

hauek dira, besteak beste: 2016ko Urteko eta jardueraren itxieraren memoria, Ohiko eta ezohiko batzar orokorraren eta Patronatuaren ohiko batzarraren deialdia eta “Bilbao Metropolitarra 2035. Begirada bat etorkizunari” hausnarketa estrategikoaren jarraipena.

prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

-Bilbao participa en un plan de urbanismo en Sudáfrica. El Correo, 26-03-2017.

- Una delegación bilbaina viaja a Ciudad del Cabo para hablar de sostenibilidad. Deia, 26-03-2017.

- Sustapen ekonomiko eta iraunkorraren gaineko jardunaldiak. Hiruka, 02-03-2017.

- Getxo teje su red de negocio estratégico. Deia, 24-02-2017.

- 210 participantes en las Jornadas de Promoción Económica Sostenible. Getxoberri, 23-02-2017.

- Google y la NASA buscan a los emprendedores más disruptivos. Estrategia Empresarial, 01-02-2017

- Jornadas de Promoción Económica Sostenible. Getxoberri, 26-01-2017.

- Getxo analiza sus sectores clave en la economía. Deia, 25-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity Uni-

versity Global Impact Challenge”. Europa Press, 12-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity University Global Impact Challenge”. La Vanguardia, 12-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity University Global Impact Challenge”. Europa Press, 12-01-2017.

- Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity University Global Impact Challenge”. eldiarionorte.es, 12-01-2017.

- Los cinco magníficos. Periódico Bilbao, 01-01-2017.

- 2016ko Bilboko Ospetsuak. Periódico Bilbao, 01-01-2017.

- Tipos de interés... ilustres. Deia, 19-12-2016.

- “Sois los nuevos faros de la ciudad”. El Correo, 15-12-2016.

- Los que dan ilustre a Bilbao. Deia, 15-12-2016.

- Aburto condecora a los cinco Ilustres de Bilbao de este año. El Nervión, 15-12-2016.



www.bm30.es/prensa

MARTXOAK 2

II Ekintzaitetza, Bizitza eta Iraunkortasuna jardunaldiak. Paraninfo UPV.

MARTXOAK 4-5

SKILLS Programa. Taldekako coachinga. DU, UPV/EHU.

MARTXOAK 6

Uniporten Zuzendaritza Batzordea. Uniport. Uniport.

World Cities lan-bilera. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MARTXOAK 7

SKILLS programa. Aurrez aurreko tailerra jardunean dauden profesionalekin. Elkargoen Egoitzak.

MARTXOAK 8

SKILLS Programa. Lekukotzak grabatzeko tailerra. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MARTXOAK 9

Mintegia: Lankidetzaren ekonomia. BEAZ.

MARTXOAK 13

SKILLS Programa. Aurkezpen-ekitaldia. DU.

MARTXOAK 20

World Cities lan-bilera. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MARTXOAK 21

Bilbao Bizkaia Action Group. BEAZ.

SKILLS Programa. Talde-dinamika. MU.

MARTXOAK 22

SKILLS Programa. Talde-dinamika. UPV/EHU, DU.

MARTXOAK 23

Talentia. Topaketa profesionalak. DU.

MARTXOAK 24

SKILLS Programa. Talde-dinamika. UPV/EHU.

MARTXOAK 27-31

World Cities Programa. Lurmutur hiria. Hegoafrika.

MARTXOAK 27

Uniporten Hausnarketa Estrategikoa. Arrupe Etxea.

MARTXOAK 28-29

SKILLS Programa. Taldekako coachingeko bigarren saioa. MU.

MARTXOAK 28

Talentia. Topaketa profesionalak. UPV/EHU.

MARTXOAK 30

San Luis Potosiko (Mexiko) udalaren bisita. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

APIRILAK 4-5

SKILLS Programa. Taldekako coachingeko bigarren saioa. UD, UPV/EHU.

APIRILAK 4

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea. Bilboko Udala.

APIRILAK 10

World Citiesen jarraipen-bilera. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

APIRILAK 26

Bisita: Audencia Nantes - Ecole de Management. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

APIRILAK 27

Aktibatu+ programaren jarraipen-batzordea. Iberdrola dorrea.

APIRILAK 28

130. Zuzendaritza Batzordea. EUDEL.

MAIATZAK 9

ANDREkintzaileari buruzko informazio-saioa. BEAZ.

MAIATZAK 10

German Marshall Fund. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MAIATZAK 11-12

XX. Topaketa: Ebro-poliko plan estrategikoak. Zaragoza.

MAIATZAK 18

IV Emakumea, Berdintasuna & Ekintzaitetza Foroa. DU.

MAIATZAK 19

Ulsaneko (Hego Korea) ordezkariaren bisita. Bilbao Metropoli-30.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano
Bilbao Metropolitarraren Birbizteko Elkarteak
Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA